

Eibartarrak futbol taldea Espainiako azpitxapeldun

Pasa den Maiatzean Levanten ospatu zen Espainiako nesken futbol txapelketako finala. Aurrez aurre, bertako taldea Levante eta Eibarko Eibartarrak taldeak izan ziren. Balentzia aldeko taldea gailendu arren ezin ukatu eibartarrek borobildu duten denboraldi ezin hobea. Talde horretan, hiru ermuar ditugu, Amaia Maiztegi, Itziar Poves eta Samara Ruiz. Beraiekin izan gara Levantetik etorri ostean.



- Levanten galdu arren, umoretsu ikus-tzen zaituztet...

Galtzea ez zaio iñori atsegin baina dena den oso pozik gaude. Levanteko jokalaria fitxa profesionala dute, gu baino askoz aurrekontu handiagoa. Dena den, Espainiako Txapelketaren finalera iristea ez da gutxi.

- Bertarako txartela Euskal Herriko li-gan garaile izateagatik lortu zenuten..

Hala da. Euskal Herriko zonaldea deritzan ohorezko maila, 13 taldek osatzen dute Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko taldeak, alegia. Lehia gogorra izan zen eta aurtengoan txapeldun geratu ostean, Espainiako txapelketarako txartela lortu genuen.

- Maila altua dauka nesken futbolak?

Euskal Herri mailan oso altua, gehienbat Gipuzkoan. Añorga eta Oiar-tzungo taldeak oso maila ona dute baina oro har neurrak lehiatuak izan dira.

- Taldearen batzbesteko adina zenbatekoa da?

Adin ezberdineko neska taldea osatzen dugu. 17 urtetik hasi eta 28 urte bitarteko jokalariz osatzen da taldea.

- Ermukoak, Eibarkoak...

Markina, Soraluze, Elgoibar eta in-guruko herrikoak gara ia denak.

- Nola hasi zineten futbol talde batean?

Gu geu futbitoan hasi ginen eta hor-txe sortu zitzaigun zaletasuna.

- Tamalez oraindik gutxi zarete...

Ez pentsa. Eibarren adibidez ikaste-txeetan asko bultzatzen dituzte nesken futbito taldeak eta gure taldeaz gain, ba-dago beste talde bat ere aurreneko re-gional mailan diharduena. Ermuan zai-lagoa da.

- Noiz arte segitzeko asmoa duzue...

Oraindik gazteak garen arren, iritxi-ko da horretan pentsatzeko unea, kirol hau tamalez ez baita profesionala. Dena

den, gustatzen zaigun kirola egitea ere oso garrantzitsua izan da guretzat.

- Koadrila eta senitartekoek zer diote?

Beraien babes osoa eskaintzen di-gute eta beti aurrera jarraitzeko esa-nez.


- Hurrengo erronka....

Laister hasten dugun Erreginaren Kopan ahal den eta urrutien iristea.

JAVI COFRECES ENTRENATZAILE

Eibarko Amaña auzokoa den a-rren, makina bat urtetan Ermuko talde nagusian aritutako Javi Cofreces da Eibartarrak nesken futbol taldeko en-trenatzailea. Duela 7 urte utzi zion fut-bolean jokatzeari eta urtebete darama taldeko gidari bezala. Gustora dagoela eta nesken futbol maila Euskal Herrian oso altua dela aitortu digu.


Asier Ibaibarriaga




IKASTOLA
33 urte Ermua
euskalduntzen



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko



PRO



• ARRAINDEGIA
• ITSASKIAK
• ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

ESKaintza Berezia
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA